

**Arartekoaren 2014R-25-14 Ebazpena, 2014ko abenduaren 10ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailari gomendatzen zaio neurriak hartzea Ertzaintzan arraza profilen garapena prebenitzeko eta kontrolatzeko.**

### Aurrekariak

1. Eusko Jaurlaritzaren ustezko zirkular bati buruzkoa kazetaritzako berri bat argitaratu zenez geroztik, arartekoak espediente bat ofizioz izapidetzea erabaki zuen aipatutako informazioa egiaztatu ahal izateko, horri buruz Ertzaintzari zer jarraibide eman zitzaizkion zehatz-mehatz jakiteko eta gaiari buruzko gure hurrengo jarduerak behar bezala bideratzeko. Aipatutako zirkular horren arabera, Ertzaintza zirikatzen zen Barakaldon gazte magrebtarrak eta beste kolektibo batzuetako pertsonak identifikatzeko.

Gure lehen neurria Segurtasun Sailera jotzea izan zen albisteak aipatutako zirkular hori hartu zuen edo ez jakiteko, eta eman ziezaguten, hala badagokio, agiri horren kopia bat.

Informazio eskaeran, sail horri gogorarazi genion, erakunde honek urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean zer jarrera hartu zuen albistea sortzen zuen gaiaren gainean, "Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari buruzkoa" (VI.1 atala).

2. Gure eskaerari erantzunez, Segurtasun Sailak aipatu zigun gure esku hartzea eragin zuen albistea Sestaoko ertzainetxeak 2013ko azken hiruhilekorako egindako ekintza plan bati buruzkoa zela, indarkeria eta larderiarekin egindako lapurreta delitu bati buruzkoa, eta ez sail horrek eduki horrekin egindako zirkular edo jarraibide bati buruzkoa eta, esan zitzaigunez, ez zena eman.

Informazioan azaldu zenez, plana (haren kopia eman zitzaigun) hauxe zen: *"geografia eta denbora esparru jakin batean delitu mota zehatz bat saihesterakoan poliziaren eraginkortasunerako azterketa, jarduera eta ebaluazio-agiri bat"* (Sestaoko ertzainetxeari dagokiona); eta helburu hau zuen: *"Ertzainetxe horren mugaketaren esparruan indarkeria edo larderia tartean duten lapurreta-delituen kopurua eta eragina murriztea"*. Gainera, adierazi zen agiriak *"planifikatutako jarduera batzuk biltzen dituela eta horien artean identifikaziorako urratsak daudela, delinkuentzia-ezaugarrien arabera, estatistika datuak oinarri dituztenak. Datu horiek zenbait alderditan eragina dute, besteak beste, gertakarien lekuan, orduan, modus operandi izenekoan, egileen eta biktimen ezaugarrietan eta delitua definitzeko eta prebentziorako eta jazartzeko aukera ematen duten horietan guztietan"*. Eta amaitzen zen, balioetsiz agiri hori honako hauei egokitzen zitzaizela: identifikazioei buruzko



Segurtasuneko Sailburuordetzaren instrukzioari; otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoari -Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzkoa-; uztailaren 17ko Euskal Herriko Poliziaren 4/1992 Legeari; aipatutako Arartekoaren 7/2001 Gomendio Orokorriari, urriaren 28koa.

3. Segurtasun Sailak emandako erantzuna aztertuta, honako hau irizten dugu: informazio horrekin eta planak berak eskaintzen zuenarekin, agiri horretan egindako identifikazio jardueren plangintza (arrazaz jatorriei buruzkoa) ez zegoela justifikatuta, eta ez zituela eskatutako oinarriak betetzen ere, diskriminatzailea ez zela izan ulertu ahal izateko.

Gure azterketa eta hura oinarritzen duten arrazoiak Segurtasun Sailari helarazten dizkiogu, horri buruzko iritzia eman diezagun, hurrengo atalean jasotzen ditugunekin bat datozen arrazoiak. Halaber, ondorengo alderdiei buruzko informazioa emateko eskatzen diogu:

- a) plana azkenean onartu zen ala ez, bertan aurreikusitako jarduerak egin ziren eta antzeko planak onartu ziren 2014. urtean.
- b) 7/2011 Gomendio Orokorrean (VI.1 atala), urriaren 28koa, proposatu genituen prebentzio eta kontrolako neurriak hartu zituen, eta hala egin ezean, horri buruzko zer aurreikuspen zituen.
- c) egindako identifikazioak aztertu ziren, hala badagokio, planaren babesean izan zitezkeen diskriminaziozko jarduerak baztertzeko eta, aztertu baziren, haietatik zer emaitza lortu ziren.
- d) administrazio horrek zer iritzi duen honako hauei buruz: Ertzaintzan Arartekoak eta NBEko Errelatore Bereziak proposatutako identifikatzeko formularioa ezartzeko bideragarritasuna, arrazismoaren forma garaikideak, arrazako diskriminazioa, xenofobia eta intolerantziaren forma lotuak, aurrerago aipatuko dugun arraza profilen erabilera prebenitu eta kontrolatzeko, eta haren gainean zer ahalmen duen.

4. Bigarren eskaera horri erantzunez, Segurtasun sailak ondorengo informazioa eman digu:

*“De acuerdo con las instrucciones vigentes en la Ertzaintza, ‘Las identificaciones se realizarán con absoluta neutralidad e imparcialidad, evitando cualquier práctica abusiva o arbitraria, y respetando en todo momento los principios de igualdad y no discriminación, y los demás que se consignan en la Constitución y en la Declaración de Derechos Humanos’.*



*En relación al supuesto, reflejado en medios periodísticos y que dio lugar a la actuación de su institución, se ha seguido un plan establecido contra la delincuencia en determinadas zonas, sin que se haya determinado la necesidad de un análisis específico de las identificaciones realizadas. A pesar de que algunas expresiones y ciertos enfoques del Plan de Acción aportado sean mejorables, la Ertzaintza en ningún caso ha implementado los denominados perfiles étnicos o raciales.*

*Dado que el origen del asunto, es una referencia periodística, nos permitimos reflejar que también en medios periodísticos se señaló el incremento de un 30% de los hechos delictivos en Barakaldo en 2013, y actualmente se ha publicado la disminución del 22% de los mismos en el primer semestre de 2014. Debe entenderse que esta disminución es resultado, entre otros motivos, del Plan de Actuación diseñado por la Ertzaintza.*

*Así mismo, la aplicación del principio de no discriminación y de la defensa de la igualdad de trato frente a la discriminación se considera fundamental para garantizar la convivencia y, por ello, además del respeto escrupuloso de los derechos humanos, la persecución de los delitos de odio constituye una prioridad para la Ertzaintza.*

*Por otro lado, el Departamento de Seguridad observa con atención las formulaciones y recomendaciones que se realizan por parte de los operadores de derechos humanos, máxime si las mismas provienen del Ararteko.*

*Indicar, así mismo, que todas las identificaciones quedan registradas en los sistemas de control de la Ertzaintza, como una actuación policial con indicación de los datos significativos de la misma, generándose un procedimiento que garantiza los derechos del identificado.*

*En este sentido, constatar que el Departamento de Seguridad comparte las inquietudes sobre la formación de los agentes de la Ertzaintza en materia de derechos humanos, así como incluso la relevancia de la labor policial en la lucha contra los delitos raciales."*

Segurtasun Departamentuak ez digu eman helarazitako planaren balioespenaren gaineko iritzirik, haren alderdi eztabaidagarriari dagokienez, eta ez digu inolako eragozpenik jarri, Ertzaintzak ez duela inolako arraza profilik inplementatu ziurtatzea baino. Plan horren zer alderdi hobe daitezkeen ere ez du zehaztu, eta ezta haiek baliospenean adierazten ditugunekin bat datozen ere.



Sail horrek ez digu argitu plana azkenean onartu zen eta bertan aurreikusitako jarduerak egin ziren, nahiz eta eman zaizkigun azalpenetatik onartu eta gauzatu zela ondoriozta dezakegun.

Segurtasun Sailak ez digu esan 2014an antzeko beste plan batzuk onartu diren. Ez digu esan ere, 7/2011 Gomendio Orokorrean (VI.1 atala), urriaren 28koa, proposatutako neurriak hartu diren, eta haren gainean zer aurreikuspen duen ere oraindik neurririk hartu izan ez balu. Eta ez digu ezer adierazi aurrez aipatutako identifikazio orria Ertzaintzan ezartzeko bideragarritasunaren gainean; izan ere, uste dugu hurrengo atalean azalduko dugunez, identifikazioen erregistro eta kontrolari buruz emandako informazioa identifikazioak kontrolatzeko sistema orokorreki dagozkiela, ez aipatutako identifikazio orria ezarriz bilatzen den arraza profilen berriazko erabilerari.

#### Irizpenak

1. Euskal herri administrazioek Arartekoari hark eskatutako nahi adina datu, agiri, txosten edo argibide lehentasunez eta premiaz emateko legezko betebeharra dute, erakunde horrek bere funtzioak egikaritu ahal ditzan. Eskatutako informazioa eskuratzea zailtzen duen edozein jarduera, legeak trabatzen jotzen du 3/1985 Legearen 23 eta 24. artikulua, otsailaren 27koa).

Uste dugu Segurtasun Sailak oraingoan ez duela aipatutako legezko betebeharra egoki bete; izan ere, interesatzen zitzaizkigun galdera gehienei ez die erantzun, aurrekarietan adierazi dugunez, eta hori egiteko eragozpenik ere ez du justifikatu.

2. Aurrekarietan azaldu dugu, espediente honen xede den ekintza plana honako era honetan justifikatzen dela: Sestaoko Ertzaintzaren komisariari emandako lurralde-esparruan (Barakaldo, Sestao eta Trapagarango udalerriak) gertatutako indarkeriazko edo larderiezko lapurreta delituak murrizteko beharrarekin.

Plana jasotzen duen agirian, aurreko hiruhilekoan (2013ko hirugarren hiruhilekoa) mugape horretan Ertzaintzak jakindako era horretako delituen azterketa oso bat egiten da, hainbat ikuspegitatik aztertuta. Zehazki, delituak ondorengo elementu bereizgarriak aintzat hartuz aztertzen dira: zer udalerritan gertatu ziren, ebatzitako kasuak, zein modalitatetan, modus operandia, auzoa, gertatutako tokiak zer ezaugarri zituen, hilabetea, asteko eguna, lan txanda eta zer ordutan gertatu zen, atxilotutako edo egotzitako pertsonen



sexua eta adina, bai eta biktimena ere, eta atxilotutako eta inputatutako pertsonen arraza zer jatorritakoa zen.

Azken aldagai horretan, ondorengo arrazak jasotzen dira: zuria, arabiarra, ijitoa, hegoamerikarra eta beltza.

Agiriak emandako datuen arabera, ezagunak diren 88 kasuetatik 70 Barakaldokoak dira, hau da, azken horien % 79,54.

Kontuan hartutako delitu horrengatik atxilotutako edo inputatutako pertsonen ezaugarrien azterketa –araza, adina eta sexua– atxiloketa edo inputazio bat izandako 29 kasuz osatutako lagin baten gainean egiten da.

Egoera horietan atxilotutako edo inputatutako pertsonak planak zuria esaten duen arrazakoak ziren gehienbat (16 kasu); ondoren, ijito eta arabiar arrazakoak, 6 eta 5 kasurekin, hurrenez hurren; eta, azkenik, arraza hegoamerikarrekoak, 2 kasurekin.

Zenbatu diren atxilotutako edo inputatutako gehienak gizonezkoak dira, eta haien adin tartea 18 urte baino gutxiago dituzten eta 30 urte artekoa da.

Egindako delinkuentzia azterketan lortutako datuetatik abiatuz, planak zenbait jarduera finkatzen ditu; haien artean, prebentziozko patruilak daude, eta haiei zehazten diren identifikazioak egiteko zereginak ematen zaizkie, beste funtzio batzuen artean.

Barakaldoko udalerriri dagokionez, gure esku hartzea hari mugatu zitzaion hasieran, zeregin hori hainbat formularekin adierazten da, gertatzen den toki eta asteko egunaren arabera (laneguna edo asteburua eta jai bezpera).

Zehazki, lanegunetako jarduera, erdigunean, honako era honetan definitzen da: *"Susmagarrien identifikazioa, arabiarrek eta toxikomanoak, lapurreten balizko egileak"*.

Megapark merkataritza gunean, honako era honetan aipatzen da: *"Gizonezko zuri edo arabiarren identifikazioa, delitu-mota horien susmagarriak izateagatik"*.

Retuerto-Artagabeitia auzoetan *"ijito eta pertsona zuri susmagarrien identifikazioa"* esaten da.



San Vicente parkean, La Torre kalean eta alboko kaleetan, honako era honetan: *"Delitua egiteagatik susmagarriak diren toxikomano eta arabiarrak identifikatzea"*.

Asteburuetan eta jai bezperetan erdigune eta gaueko aisialdirako *"gazte magrebtarren identifikazio berezia 21:00etatik 04:00ak bitarte"* erabiltzen da, eta metro-geltokirako, *"gazte susmagarriak identifikatu"*.

Aurrekarietan nabarmendu dugunez, Segurtasun Sailak ez digu argi esan plana azkenean onartu zen ala ez, eta bertan aurreikusitako jarduerak egin ziren ere, nahiz eta emandako informaziotik hura onartu eta aplikatu zela ondoriozta daitekeen.

Sailak ez digu esan 2014. urtean antzeko planak onartu diren ere.

Nolanahi ere, uste dugu azken datu hori ez jakiteak eta aztertzen ari garen plana amaitu izan zela jakiteak ez direla oztopo haren edukari buruzko gure iritzia emateko transkribatu dugun alderdietan; alderdi horiek, gainera, gure esku hartzea eragin zuten.

Erakunde honek ontzat jotzen du Ertzaintzak delituak prebenitzeko planifikatutako jarduera bat egitea, egindakoek zer ezaugarri dituzten zehatz-mehatz aztertzetik abiatuz. Ikuspegi orokor horretatik, aztertzen dugun planari buruzko aldeko iritzia dugu oso.

Nolanahi ere, uste dugu planak berak emandako datuekin eta Segurtasun Sailak emandakoekin, arrazako jatorriei egindako erreferentziengatik agiri horretan egindako identifikatzeko jarduera plangintza ez dagoela justifikatuta.

Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean, "Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari buruzkoa" (VI.1 atala), pertsonen arraza jatorrian orokorrean oinarritutako identifikazioak egin ahal izateko aukera ukatu dugu, ez bada justifikatzen egoera hori garrantzitsua dela identifikazioarekin bilatutako helburuaren ikuspegi batetik.

Motibazioak zer garrantzi duen ere azpimarratu dugu identifikazioaren arrazoiak zein diren jakiteko eta erabaki ahal izateko araudiaren babesa duen, bai eta diskriminaziozkoak izan daitezkeen egoerak hauteman ahal izateko ere. Eta nabarmendu dugu motibazioak zehatza eta behar bestekoa izan behar duela, ez direla motibazio orokorrak sartzen ("herritarren segurtasuna", adibidez), baizik eta kaltetutako pertsona bakoitzarekin poliziak izandako jarduera justifikatzen duten arrazoi zehatz nahiz berariazkoak azaltzen direla.



Gomendioan agerian utzi genuenez, Kontseilu Europarreko Arrazismo eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordeak (ECRI) uste du, arraza profilak egitea arraza diskriminazioa egiteko era bat dela. Gogora ekarri behar da, erakunde horrek arraza profilak egitea honako era honetan definitzen duela: polizia-indarrek, inolako justifikazio objektibo eta arrazoizkorik gabe, erabiltzen dituen oinarriak (arraza, kolorea, hizkuntza, erlijioa, nazionalitatea edo jatorri nazionala edo etnikoa, esaterako) kontrol, zaintza eta ikerketa jardueretarako (11. Gomendioa).

Batzordeak adierazi du, oinarri horiek erabiltzeko justifikazio objektibo eta arrazoizkorik ez dagoela, baldin eta zentzuzko proportzionaltasun harreman bat ez badago erabilitako baliabideen eta lortu nahi den helburuaren artean, legezkoa izan behar den helburua.

Batzordeak azpimarratu du ere, kontroleko polizia jarduerak irizpide objektiboetan oinarritutako susmo baten gainean bakarrik egin daitezkeela, hau da, oinarritu behar dira, kontrol hori duten pertsonen delituko jarduera jakin bati lotutako banakako jokabide eta froga objektiboetan.

Nabarmendu du, aipatutako edozein oinarriren erabilera objektibo eta arrazoizko baten hipotesia era murriztaile batean interpretatu behar dela.

Garrantzitsuena, hortaz, honako hau da: poliziaren identifikazioak arraza jatorriagatik erabakitzen diren aztertzeak edo jatorri horren arabera planifikatzen diren aztertzeak diskriminazioaren bat sortzen duen jakiteko, argitu behar da, alde batetik, elementu horren erabilera irizpide objektiboetan funtsatutako susmo batean oinarrituta dagoen, bestetik, justifikazio objektiboa eta zentzuzkoa duen, eta azkenik, proportzionaltasunaren printzipioa errespetatzen duen.

7/2011 Gomendio Orokorrean, urriaren 28koa, adierazi genuenez, proportzionaltasunaren printzipioarekiko errespetuak eskatzen du, oro har, delako neurriak ondorengo oinarri edo hipotesiak bete ditzala, konstituzioaren jurisprudentziaren arabera: a) egokia izatea lortu nahi den helbururako (egokitasun printzipioa); b) beharrezkoa izatea, hau da, helburu hori lortzeko hain zaila ez den beste neurri egoki bat ez izatea (beharraren printzipioa); eta c) auzitan dauden ondasun edo balioen gainean kalteak eragin baino, interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago ekarriko dituen neurri bat izatea (proportzionaltasunaren printzipioa, zentsu hertsian).

Erakunde honen iritziz, Barakaldori buruz planean ezarritako identifikazio jarduerak ez dituzte adierazitako eskakizunak betetzen, espediente hau izapidetzea ekarri zuten jarduerak direnak.



Jarduera horiek aurreko irizpideen arabera aztertu aurretik, komenigarria iruditzen zaigu planak deskribatzeko erabilitako bi formulak azpimarratzea. Aurrez esan dugunez, batzuetan identifikazioak erabakitzen dira aipatzen diren talde edo kolektiboetakoak izateagatik soilik, identifikazioa justifikatuko duen identifikatutako pertsonari buruzko susmoa dagoen edo ez jakin gabe; beste zenbaitetan, berriz, erabakitzen dira aipatutako arraza taldeen barnean pertsona susmagarriak direlako. Lehen hipotesian, lanegunetan erdigunean planifikatutako identifikazioak daude (*"susmagarriak diren toxikomano eta arabiarrek identifikatzea, lapurreten balizko egileak"*) eta toki horretan bertan asteburuetarako eta jai bezperetarako ezarritakoak (*"gazte magrebtarrak"* kolektiboari egindako erreferentzia orokorrarekin adierazten direnak). Bigarrenengan, planifikatutako gainerako identifikazioak daude, eta haiei gizonezko *"zuri"*, *"arabiarrek"* esaten zaie, *"ijitoak"*, *"zuriak"* eta *"toxikomanoak"*, eta aldi berean susmagarriak direnak.

Garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea ere, adierazitako lehen identifikazioa deskribatzeko hitzak (*"susmagarriak diren toxikomano eta arabiarrek identifikatzea, lapurreten balizko egileak"*) ez direla oso argiak, eta identifikatzeko hiru maila ezartzen ari direla pentsa daitekeela: susmagarriena, alde batetik, eta arabiar eta toxikomanoena oro har, bestetik, susmagarriak diren edo ez alde batera utzita.

"Toxikomanoak" identifikazioari planean zer erreferentzia egiten zaion ere azpimarratu nahi dugu, delinkuentziaren ezaugarrien aurretiazko azterketan ez baita aldagai hori jaso.

Beharrezkoa iruditzen zaigu, jatorri arabiar eta magrebtarreko biztanleen artean agiri horrek zer asimilazio okerra egiten duen agerian uztea.

Esandakoan oinarrituz, erakunde honek uste du identifikatzeko poliziaren jardueretan arraza jatorriak adieraztea ez dela egokia, aipatutako taldeko susmagarrietara mugatzen den hipotesietan ere, baldin eta talde horretakoak izateak esanahi berezia ez badu behintzat identifikazioarekin bilatutako helburuaren ikuspegitik, jarduera hori egitea justifikatuko zuena.

Gure ustez, nolana ere, azken hipotesi hori ez da gertatzen aztertzen ari garen kasuan.

Gure aburuz, egin beharreko identifikazioak ezartzeko planean arraza jatorriak adieraztea ez da justifikatzen –tresna horrekin bilatzen den legezko helburuaren ikuspegitik– agiri horretan jasotako aurretiazko txostenetik ondorioztatutako estatistika datuetan, inputatutako edo atxilotutako pertsona





baten delituei buruzko agirian; haiek arraza jatorriaren aldagaia aztertutako delituak dira, agerian jarri dugunez. Ezagutzen diren 70 delituetatik 29 dira, eta arrazaren arabera balizko egileen banaketatik ez da datu adierazgarri ateratzen, hau da, delituak arraza jatorri jakin batekin lotuko dituen datu adierazgarriak. Eskuratutako datuek, aldiz, gure gizartearen arraza dibertsitatearen ispilu direla dirudite; horrek esan nahi du, delitu horren prebentzioaren ikuspegitik ez dutela garrantzi handirik eta, arrazoi horrengatik, horri buruzko elementu erabakigarriak ez zutela emango eta, horren ondorioz, ezta planaren helburua lortzeko balio potentzialik ere.

Aipatutako arrazoiengatik, gure iritziz, horrek esan nahi du datu horiek behar den justifikazio objektibo nahiz arrazoizkotik kanpo geratuko zirela arraza jatorriaren erreferentzia onar ahal dadin eta ez dadin diskriminatzailea izan.

Aurrekarietan agerian utzi dugunez, Segurtasun Sailak ez digu balioespen horren gaineko iritzia eman eta ez digu horri buruzko eragozpenik jarri ere; izan ere, puntu horretan soilik orokorrean esan digu: *"a pesar de que algunas expresiones y ciertos enfoques del Plan de Acción aportado sean mejorables, la Ertzaintza en ningún caso ha implementado los denominados perfiles étnicos o raciales"*, azken baieztapen hori arrazoitu gabe eta horri buruz helarazi genizkion kontrako arrazoiak eztabaidatu gabe. Zer alderdi hobe daitezkeen ere ez du zehaztu eta alderdi horiek erakunde honek adierazitakoekin bat datozen.

3. Profil teknikoak jartzeak eragin txarra du aipatutako taldeen aurkako aurreiritzi nahiz estereotipoak sendotzeko garaian. Eragiten die ere, pertsonen duintasunari, haien gizarteratzeari eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko politiken eraginkortasunari arrazoi etniko, arrazako edo jatorri nazionalako arrazoiengatik. Gainera, jatorri hori duten pertsonen irudia kaltetzen du, eta baita haien kolektiboena ere; batzuk zein besteak susmopean jartzen ditu egoera horrengatik bakarrik, estigmatizatuz.

7/2011 Gomendio Orokorrean, urriaren 28koa, alderdi hori azpimarratu genuen, bai eta norabide horretan Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, arraza diskriminazioaren aurkako nazioarteko nahiz Europako erakundeek, eta Arartekoa berak (VI.1 atala) agertutako jarrera.

Garrantzitsua iruditzen zaigu ondorio kaltegarri horiek nabarmentzea, kontroleko polizia edozein jardueratan buruan eduki eta aztertu beharko zirela uste baitugu, unean uneko neurria erabakitzeko egin beharreko proportzionaltasun eta arrazoizkotasun printzipioen zati izanik eta, are gehiago, planifikatutako jarduera bat bada, aztertzen ari garen honetan bezala.



4. Kontseilu Europarreko Arrazismoaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordeak (ECRI) Poliziari dagokion zeregin ona azpimarratu du arrazismoaren eta arraza diskriminazioaren aurkako borrokan eta giza eskubideen sustapenean; horrekin batera, poliziei zeregin hori erabat betetzeko behar dituzten baliabideak emateko dagoen beharra ere aipatu du. 7/2011 Gomendio Orokorrean, urriaren 28koa, gai horri buruz ere hitz egin genuen (VI.2 atala).

Garrantzitsua iruditzen zaigu alderdi hori nabarmentzea, gure ustez kontuan hartu beharko baizen bereziki delinkuentziaren aurka egiteko edozein jarduera planifikatzeko orduan.

Gai horri dagokionez, Segurtasun Saila honako hau egiaztatzerara mugatu da: *"comparte las inquietudes sobre (...) la relevancia de la labor policial en la lucha contra los delitos raciales"*; eta hauxe aipatzera: *"la persecución de los delitos de odio constituye una prioridad para la Ertzaintza"*.

Hala ere, uste dugu informazio horrek ez diola gure plangintzari erantzuten; izan ere, gure balioespenean helarazi genuen lan hori kontuan hartu behar zela jarduerak planifikatzeko garaian.

5. 7/2011 Gomendio Orokorrean, urriaren 28koa, adierazi genuen poliziek prebentziozko mekanismoak finkatu behar dituztela arraza jatorriagatik diskriminaziozko jarduerak egon ez daitezen (VI.1 atala).

Mekanismo horien artean, Kontseilu Europarreko Arrazismoaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordeak (ECRI) zer proposamen egin dituen azpimarratzen ditugu ondoren, profil etniko eta arraza profiletan oinarritutako identifikazioak egin ez daitezen: a) arraza profilen garapena ikertzea eta poliziaren jarduerak ikuskatzea era horretako jarduerak identifikatzeko, garrantzitsuenak direnekiko xehatutako datuak bilduz honako oinarri hauen arabera: jatorri nazionala edo etnikoa, hizkuntza, erlijioa eta nazionalitatea, esaterako; b) poliziaren kontrol, zaintza edo ikerketako jarduerak irizpide objektiboetan oinarritutako susmo baten gainean bakarrik egin daitezkeela azpimarratzea; eta c) giza eskubide orokorrei buruzko gaietan agenteak prestatzea, arrazismoa eta arraza diskriminazioa ez jasateko eskubidea barne, eta arraza profilak garatzeari buruzko gaietan prestatzea ere.

Ildo horretatik jarraituz, Arartekoak identitate kontrola jaso duen pertsonaren etnia, arraza edota nazionalitatea jasotzen diren identifikazio formularioak erabiltzea gomendatu du, bai eta zergatik identifikatu den ere, informatutako



baimen eta konfidentziasuneko printzipioen arabera, aldagai horiek xehatutako datuak bildu eta jarraitzeko estatistika sistema bat egiteko helburuarekin.

Bestalde, arrazismo, arraza diskriminazio, xenofobia eta intolerantziari lotutako formei buruzko NBEko Errelatore Bereziak ere gomendatu du –2013an Espainiara egindako bisitan– neurriak har daitezela arraza profilen eta profil etnikoen erabilerarekin amaitu ahal izateko, lege mailan jarduera hori berariaz debeka dadila, eta polizia agenteei irizpide argiak ematea atxiloketa eta identifikazioak egiteko orduan. Egiten diren identifikazioak erregistratzeko formularioak erabiltzea ere gomendatu du.

Aipatutako gomendioei dagokienez, Segurtasun Sailak hauxe baino ez du esan: *"todas las identificaciones quedan registradas en los sistemas de control de la Ertzaintza, como una actuación policial con indicación de los datos significativos de la misma, generándose un procedimiento que garantiza los derechos del identificado"*; adierazi duenez, *"observa con atención las formulaciones y recomendaciones que se realizan por parte de los operadores de derechos humanos, máxime si las mismas provienen del Ararteko"*; eta, gainera, *"comparte las inquietudes sobre la formación de los agentes de la Ertzaintza en materia de derechos humanos"*.

Aipatutako sailak ez digu jakinarazi, ordea, gomendioan adierazitako mekanismoak ezarri zituen, eta identifikazio orria ezartzea bideragarria den ere. Ez digu esan aipatutako neurriak antolatzeke oztoporik dagoenik ere.

Zehaztu beharra dugu, aipatutako erakundeek proposatutako identifikatzeko formularioen helburua, arraza profilak erabiltzeari buruzko berriazko datuak biltzea dela haiek ebaluatu eta jarraitzeko, izan daitezkeen diskriminaziozko jarduerak hauteman ahal izateko asmoz. Hori dela eta, helburu hori ez zen beteko, uste dugun moduan, aipatutako aldagaiak sailaren informazioak adierazitako identifikazioen kontroleko sistema orokorretan ez badira erregistratzen, eta ikuspuntu horretatik aztertzen ez badira ere.

Informaziorik ez izatean, horrek, Segurtasun Sailak ez duela oraindik aipatutako neurriak ezarri pentsatzera eramaten gaitu.

Bestalde, erakunde honek uste du delituak prebenitzeko edozein ekintza planek mekanismo bat izan beharko zuela haren babesean egindako identifikazioak berraztertzea bermatuko duena analizatzen ari garen ikuspegitik.



Aztertzen ari garen planak ez du halako mekanismorik. Agerian utzi dugunez, Segurtasun Sailak ez du haren babesean egindako identifikazioak ere aztertu, eta ez du azterketa hori egiteko beharrik ikusten ere, igorri digun informazioaren arabera.

6. Gure azterketa espedientearen jatorrian dagoen kazetaritzako albisteak zioen planaren edukira mugatu da.

Nolanahi ere, zehaztu behar dugu egin dugun analisia plana Trapagaranen jasotako identifikazioetan aplika daitekeela; izan ere, haiek, Barakaldon gertatzen den bezala baina Sestaon ez bezala, atxilotutako edo inputatutako pertsona gehienen arraza taldeei (aurrez definitutakoak) egindako erreferentziagatik zehaztu dira eta, gure ustez, oraingoan ere ez dago inolako justifikazio objektibo eta zentzuzkorik aipatu ditugun baldintzetan.

Adierazi behar dugu ere, talde bati egindako erreferentzia orokorragatik zehaztutako identifikazioei buruz egin ditugun irizpenak, funtsean, planak oro har ere aipatutako beste talde edo kolektibo batzuetan ere aplika daitezkeela, gazteen eta toxikomanoen taldeetan, adibidez.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo gomendioa egiten dio Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari:

### GOMENDIOA

Prebentziozko eta kontrol neurriak ezar ditzala, Ertzaintzak arraza, etnia, nazionalitate eta jatorri nazionalari buruzko erreferentzia orokorrak inolako justifikazio objektibo eta arrazoizkorik gabe erabili ahal ez ditzan kontrol, zaintza eta ikerketako jarduerak planifikatu eta egiteko.

Neurri horien artean, honako hauek sar daitezela:

- a) arraza profilen garapena ikertzea eta poliziaren jarduerak ikuskatzea era horretako jarduerak identifikatzeko.
- b) identifikatzeko formularioak erabiltzea; haietan, identifikatutako pertsonen etnia, arraza, jatorri nazionala edota nazionalitatea jasoko dira, bai eta zergatik identifikatu ziren ere, informatutako baimen nahiz konfidentzialtasun printzipioak betez, lortutako datuak bildu nahiz jarraitzeko estatistika sistema bat egitea, aldagai horiek xehatuta, eta, haiei esker, izan daitezkeen diskriminaziozko jarduerak identifikatu ahalko dira.



- c) delituak prebenitzeko planetan haren babesean egindako jarduerak berraztertzea bermatuko duen mekanismoa bat sartzea arraza profilak egiteko ikuspegi batetik.
- d) indarrean dauden delituak prebenitzeko planak berraztertzea arraza profilak egiteko ikuspegitik, eta ikuspegi hori onartzen diren plan berrietan kontuan hartzea.
- e) Poliziek arrazismoaren eta arraza diskriminazioaren aurkako borrokan zer lan garrantzitsu duten kontuan hartzea kontrol, zaintza eta ikerketako jarduerak planifikatu eta egitean.
- f) Pertsona batzuen kolektibo jakin batzuei justifikatu gabeko erreferentzia orokorren erabileratik ondorioztatutako efektu kaltegarriak neurtzea, kontrol, zaintza eta ikerketako polizia jarduerak planifikatu eta garatzean egin beharreko proportzionaltasun eta arrazoizkotasun printzipioen zati izanik.
- g) agenteei honako hauei buruzko jarraibide argiak ematea: kontrol, zaintza eta ikerketako jarduerak irizpide objektiboetan funtsatutako susmo batean oinarrituta egin daitezkeela bakarrik.
- h) agenteak berriaz eta etengabe gaitzea arraza profilak egiten eta arraza diskriminazioa ez jasateko eskubidean.